

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

741

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 16koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez erabakitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan sustatzen ari diren zenbait jarduerari dagokien ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu diren proiektuak jendaurrean jartzea.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen xedea da atmosfera, ura eta zorua ez kutsatzea, eta hori posible ez denean, kutsadura murriztu eta kontrolatzea. Horretarako, poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuetako sistema bat ezarzen du, ingurumena osotasunean babesteko.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak, 5/2013 Legeak aldatutakoak, xedatutakoari jarraituz, instalazioen eraikuntzak, muntaketak, ustiak edo lekualdaketak, eta baita funtsezko alaketek ere, ingurumeneko baimen bateratua behar dute, baldin eta lege horren I. eranskinean jasota badaude. Ingurumeneko baimen bateratuaren helburua da araua bete behar duten instalazioek xedea bete dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, hain zuen, baimena ematerakoan parte hartu behar duten hainbat herri administrazioen lankidetzaren bermatuko duen eta hiritarren administrazio beharrak eta izapideak arintzen dituen prozedura baten bitartez gauzatuko dena.

Ebazpen honen eranskinean agertzen diren enpresek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari ingurumen baimen bateratua eskatu diote Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera.

Poluzioaren Prebentziorako eta Kontrolerako uztailaren 1eko 16/2002 Legeak araututakoari jarraituz Euskal Autonomia Erkidegoan sustatzen diren eta ebazpen honen eranskinean agertzen diren jarduerari dagokien ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu diren proiektuak jendaurrean jarri beharra dago.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea, 16/2002 Legea aldatzen duen ekainaren 11ko 5/2013 Legea, Emisio Industrialaren Erregelamendua onartzen duen eta Poluzioa Prebenitzeko eta Kontrolerako uztailaren 1eko 16/2012ko Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, hondakinen eta kutsatutako lurzoruen uztailaren 28ko 22/2011 Legea, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko egitura organikoa ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta, oro har eta bereziki, aplikagarri den bestelako legedia ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ingurumenaren baimen bateratua lortzeko sustatutako eranskinean agertzen diren proiektuak jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta eranskineko proiektu bakoitzari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu eta 30 egun balioduneko epean. Epe horretan bidezko irizitako arrazoibideak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.— Iritzitako arrazoibideak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzan aurkeztuko dira (Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

3. artikulua.— Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektuak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzan egongo dira eskuragarri (Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

Era berean, adierazitako dokumentazioa hiritarrek errazago eskura dezaten, eranskinean aipatutako proiektuak bidaliko dira, zein dagokion udalera, bertan jendaurrean jar dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 16a.

Ingurumeneko sailburuordea.

Absentziaz, (196/2013 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarria).

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA.

ERANSKINA

Esp.	Sustatzailea	Udalerria	Lurralde historikoa
AAI00358	Hormigones y Morteros Agote, S.L.	Zestoa	Gipuzkoa
AAI00359	Tramame, S.A.	Murga	Araba
AAI00360	Decons Agurain, S.A.	Agurain	Araba
AAI00363	Fragnor, S.L.	Etxano	Bizkaia
AAI00365	Recyclair, S.L.	Agurain	Araba
AAI00368	Befesa Gestión de Residuos Industriales, S.L.	Deba	Gipuzkoa
AAI00372	Ekonor, S.A.	Zierbena	Bizkaia